karien edota politikan dihardutenen arteko eztabaida da berez, baina eztabaida hori ez da oraindik kaleko jendearen artean behar adina zabaldu.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Juan Carlos Goikoetxea. Arabako Diputazioa.*

## 26. EMENDAKINA
## Párrafo 7. Pagina 4. Apartado 1.1.

**Propuesta:**

Añadir un párrafo más, es decir, el nº 8:

"Los medios de comunicación , tanto escritos como hablados, han sido y son colaboradores necesarios en el mantenimiento del conflicto desde la manipulación que llevan a cabo de la realidad vasca tanto al servicio de los poderes de los Estados español y francés, como al servicio de la banca."

**Motivos:**

Esta enmienda trata de añadir en la reflexión global sobre la evolución del proceso, el papel desempeñado por los medios de comunicación en el mismo , sin que por ello se niegue nada de lo expuesto en dicha reflexión.

## 7. Paragrafoa. 4. Orria. 1.1. Atala.

**Proposamena:**

Ondoko paragrafoa gehitzea, 8.a alegia:

"Hedabideak, idatziak zein ahozkoak, gatazka bere horretan iraunarazteko ezinbesteko lankideak izan dira, euskal errealitatea desitxuratzen jarduten baitute, bai Espainia zein Frantziako Estatuetako botereen zein bankuen zerbitzura."

**Zergatiak:**

Zuzenketa honen bidez hedabideek prozesuaren bilakaeran izandako eragina nabarmendu nahi dugu, bilakaera horri buruzko gogoeta orokorrean jasotako ezer auzitan jarri gabe ere.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Raul Uribe Lekuona. GAMESA. Metalgintza. Lautada-Gorbeia. Araba.*

## 27. EMENDAKINA
## Párrafo 10. Página 4.

**Propuesta:**

Introducir "y de freno" tras "contradictorias".

**Motivos:**

Entiendo que la crítica a ELA es blanda. ELA no ha estado a la altura de las circunstancias y, en muchos aspectos, ha jugado un papel de freno a beneficio de PNV-EA.

## 10. Paragrafoa. 4. Orria.

**Proposamena:**

"Kontraesankorrak" ondoren, "trabazkoak" erantsi.

**Zergatiak:**

Onberegia iruditzen zait ELAri egindako kritika. ELAk ez baitu eman egoerak eskatzen zuen adina eta, askotan oztopatu egin du prozesua EAJ-EAren onerako.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Pako Aranburu. Gipuzkoa.*

## 28. EMENDAKINA
## Párrafo 19. Página 6.

**Propuesta:**

Retirar el párrafo.

**Motivos:**

De lo contrario deberíamos explicar lo que entendemos por "Kale Borroka" en sus diferentes expresiones.

Por otra parte, entiendo que sí había suficientes argumentos para explicar a la sociedad la falta de compromisos y voluntades del PNV

## 19. Paragrafoa. 6. Orria.

**Proposamena:**

Paragrafoa ezabatzea.

**Zergatiak:**

Aitzitik, kale borroka eta borroka-mota honen adierazpideak nola ulertzen ditugun azaldu beharko genuke.

Bestalde, nire ustez egon bazegoen gizarteari EAJk erakutsitako konpromizu eta borondaterik eza azaltzeko adina argudio.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Pako Aranburu. Gipuzkoa.*

## 29. EMENDAKINA
## Párrafo 21. Página 6.

**Propuesta:**

Quitar el párrafo.

**Motivos:**

Entiendo que si no se aclara "los diferentes niveles de convencimiento y seguridad o decisiones que han provocado confusión en espacios organizativos y sociales" el punto está de sobra. Yo creo que desde la Izquierda Abertzale ha existido convencimientro de llevar el proceso hacia delante (por eso hemos sido motor, gasolina y todo); otra cuestión es que algunos sectores organizados no estuviesen de acuerdo con la caracterización y rítmos del proceso.

Habría que especificar "las decisiones que provocan confusión", porque yo puedo entender que el factor puede ser el arriba expuesto.

## 21. Paragrafoa. 6. Orria.

**Proposamena:**

Paragrafoa ezabatzea.

**Zergatiak:**

"Egoera hau antolatze eta gizarte guneetan nahasmena sortu duten erabakiekin areagotu da" argitu ezean, puntua sobera dagoela iruditzen zait. Nire ustez, Ezker Abertzaleak sinesmen osoa izan du prozesua aurrera eramateko (horregatik izan gara motorea, gasolina eta gainerako guztia). Bestelakoa da, beste zenbait sektore antolatu prozesuaren ezaugarri eta erritmoekin ados ez egotea.

"...nahasmena sortu duten erabakiak" zehaztu egin beharko lirateke, niri ulergarria iruditzen baitzait goian aipatzen den faktore hori.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Pako Aranburu. Gipuzkoa.*

## 30. EMENDAKINA
## Párrafo 23. Página 6.

**Propuesta:**
Quitar el párrafo.

**Motivos:**
Esa valoración de 100.000 votos no es cierta y el punto en concreto está de sobra porque a mi entender parte de una base no real.

## 23. Paragrafoa. 6. Orria.

**Proposamena:**
Paragrafoa ezabatzea.

**Zergatiak:**
100.000 botuei buruzko balorazio hori ez da zuzena, eta puntu guztia sobera dago nire ustez, erreala ez den oinarri batetik abiatzen baita.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Pako Aranburu. Gipuzkoa.*



## 31. EMENDAKINA
## Párrafos 24-25. Páginas 6 y 7.

**Propuesta:**
Fusionar ambos párrafos.

Introducir a lo escrito en la ponencia un balance político de lo que ha supuesto el proceso desde septiembre de 1.998 hasta Noviembre de 1.999 con sus aspectos positivos y negativos.

**Motivos:**

Entiendo que quedaría mejor para la valoración del fin de la tregua los pasos dados en este periodo ya que estos pueden aclarar mucho.

## 24.-25. Paragrafoak. 6.-7. Orriak

**Proposamena:**

Bi paragrafoak batzea.

Txostenean jasotzen denari 1.998ko irailetik 1.999ko azarora bitarteko prozesuak utzi digunari buruzko balantze politikoa gehitzea, alderdi on eta txarrak jasoz.

**Zergatiak:**

Su-etenaren amaierari buruzko balorazioa osatuagoa geldituko litzateke bitarte horretan emandako urratsak azalduko balira.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Pako Aranburu. Gipuzkoa.*

## 32. EMENDAKINA
## Párrafo 28. Página 7.

**Propuesta:**

"LAB interpreta que la decisión de ETA persigue impulsar la estrategia de colaboración y compromisos abiertos en Septiembre 1998. Aún así, manifiesta su preocupación por las consecuencias que la misma pueda generar puesto que la ruptura de la tregua se percibe desde algunos sectores de la Izquierda Abertzale como una tutela innecesaria y/o perjudicial al proceso. LAB apela a la máxima responsabilidad de todos los agentes políticos, sindicales y sociales vinculados en el mantenimiento del mismo."

**Motivos:**

Creemos que la modificación que proponemos es más descriptiva de la realidad. Al menos de la realidad que los miembros de nuestra sección sindical vivimos dentro de la misma y de nuestros entornos.

## 28. Paragrafoa. 7. Orria.

**Proposamena:**

"LABen iritziz, ETAk hartutako erabakiaren bidez 98ko irailean abian jarritako lankidetza eta konpromisorako estrategia bultzatu nahi izan du erakundeak. Hala ere, gure kezka adierazi nahi dugu erabaki horrek ekar ditzakeen ondorioak direla eta. Ezker Abertzaleko hainbat sektorek su-etenaren haustura behar ez den edota prozesuaren kal-

terako izan daitekeen zaintzatzat hartu baitute, eta hori ikusita, LABek dagokien erantzukizun guztiak jokatzeko deia egiten die prozesua lehenaratzen lagundu dezaketen eragile politiko, sindikal eta sozial guztiei."

**Zergatiak:**

Gure ustez, guk proposatzen dugun aldaketak hobe jasotzen du bizi dugun egoera. Gure sail sindikaleko kideok bizi duguna, barrutik zein gure ingurunean ikusten duguna bai behintzat.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Juan Carlos Goikoetxea. Arabako Diputazioa.*

## 33. EMENDAKINA
## Párrafo 29. Página 7.

**Propuesta:**

"La ruptura del alto al fuego ha generado una importante sacudida en todos los sectores que estaban implicados en el proceso acelerando de un lado reflexiones y compromisos que permitirán profundizar el mismo, y de otro pérdidas del capital humano acumulado después de la tregua."

**Motivos:**

Creemos que la modificación propuesta se acerca mejor a la realidad en la que trabajamos. Al menos a la realidad de los miembros de esta sección sindical y sus entornos.

## 29. Paragrafoa. 7. Orria.

**Proposamena:**

"Su-etenaren hausturak astinaldi nabarmena eragin du prozesuan murgilduta zeuden sektoreen artean, eta horrek prozesua sakontzea ahalbidetuko duten hausnarketak eta konpromizuak bizkortzea eragin du batetik, eta galerak eragin ditu, bestetik, su-etenaren ondoren metatutako giza kapitalean."

**Zergatiak:**

Gure ustez, guk proposatzen dugun aldaketak hobe jasotzen du bizi dugun egoera. Gure sail sindikaleko kideok bizi duguna, barrutik zein gure ingurunean ikusten duguna bai behintzat.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Juan Carlos Goikoetxea. Arabako Diputazioa.*

## 34. EMENDAKINA
## Párrafo 36. Página 8.

**Propuesta:**

Desaparición del párrafo 36.

**Motivos:**

LAB no tiene que justificar, y menos a la defensiva, ante nadie cuáles son sus labores y objetivos en la sociedad vasca. Desde LAB se ha dejado bien claro cuáles son los compromisos adquiridos en pro de la consecución de las libertades, que como Pueblo nos corresponden. Con la reiteración de proclamar que LAB no tiene como función dar cobertura a la lucha armada se puede interpretar, y de hecho lo interpretamos, que necesitamos una reafirmación de nuestro realizar sociopolítico, ante no se sabe muy bien quién. Ya que si es hacia fuera, claro queda por el quehacer diario cuáles son las actividades que el sindicato realiza en la sociedad. Si por el contrario es hacia dentro todo afiliado y afiliada sabe, o debe saber, las funciones y compromisos que LAB desde su fundación adquirió para con nuestro Pueblo y dentro del proceso de Construcción Nacional en el que nos hallamos inmersos, y que a lo largo de estos años ha ido reafirmando.

Puede entenderse, con ese no dar cobertura, que estemos , sin quererlo, abriendo la puerta a acciones contra aquellos y aquellas compañeras del Sindicato que han militado, militan o puedan militar en la propia Organización Armada.

Con respecto al párrafo donde se hace referencia a la desaparición de todo tipo de hechos violentos, nos parece que se da un paso peligroso al equiparar la violencia de los Estados con el accionar de respuesta político militar de la organización armada ETA . Si como reconocemos en el punto (34) la violencia institucional, policial, judicial, socio-laboral y cultural existen, sabemos que las acciones de ETA son de respuesta y que ésta desaparecerá en tanto en cuanto desaparezca la violencia de los Estados, cuestión ésta , por otra parte, que la propia Organización ha hecho pública en innumerables ocasiones.

Pensamos que tanto el tema de la lucha armada como el de los objetivos y labores de LAB quedan reflejados en los apartados (34) y (37) por lo que planteamos la desaparición del punto (36) de este anexo a la Ponencia Política de este Congreso.

## 36. Paragrafoa. 8. Orria.

**Proposamena:**

36. Paragrafoa kentzea.

**Zergatiak:**

LABek ez du zertan inoren aurrean justifikatu, eta are gutxiago gure burua defendatzeko, zein diren euskal gizarteari begira dituen betekizunak eta helburuak. LABek argi eta garbi utzi du zein diren Herria garen aldetik dagozkigun eskubideak lortze aldera hartutako konpromizuak.

Borroka armatua babestea gure zeregina ez dela behin eta berriz esanez, badirudi gure jardun sozio-politikoa berresteko nolabaiteko beharra dugula ez jakin oso garbi zeinen aurrean. Izan ere, berrespen hori kanpo aldera begira eginez gero, garbi dago zein den gure sindikatuak gizartean burutzen dituen jarduerak zein diren; eta barnealdera begirakoa izanez gero, berriz, LABeko kide guztiek jakin badaki, edo jakin beharko luke, zein diren sindikatuak sortu zenez geroztik gure Herriarekin eta bizi dugun nazio-eraikuntzarako prozesuarekin hartutako eta urte-

en buruan berretsi izandako konpromizuak eta burutu beharreko eginkizunak.

Beraz, borroka armatuari babesik ez emate horrekin uler liteke erakundeko kide izan diren edo izan litezkeen burkideen aurkako ekintzei atea zabal geniezaiekela, nahi izan gabe ere.

Adierazpide bortitz oro ezabatu beharrari buruzko paragrafoari dagokionez, urrats arriskutsua iruditzen zaigu Estatuen indarkeria eta ETA erakunde armatuaren erantzun politiko-militarra parekatzea. 34. puntuan diogunari jarraiki, indarkeria instituzional, polizial, judizial, sozio-laboral eta kulturala egon badago, jakin badakigu ETAren ekintzak erantzun-ekintzak direla, eta beraz, ekintza hauek desagertu egingo direla Estatuena ezabatu bezain pronto, erakundeak behin eta berriz aditzera eman izan duen bezala.

Beraz, borroka armatuaren gaia eta LABen helburu eta eginkizunak 34. eta 37. puntuetan jasota daudela uste dugu, eta hala, Biltzarrerako txosten politikoari egindako zuzenketen txostenetik 36. puntua kentzeko eskatzen dugu.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Joseba Ortiz de Lejarazu, Iñaki Gallego, Manuel Calvo eta Txetxu Martinez (Lautada-Gorbeia. Araba).*

## 35. EMENDAKINA
## Párrafo 37. Páginas 8-9.

**Propuesta:**

Nueva redacción:

"Las nuevas variables introducidas en esta fase política no modifican el firme compromiso de LAB, de fortalecer e impulsar el proceso hacia un escenario de paz, democracia y soberanía para Euskal Herria y, para ello, articular, en torno a un proyecto político definido, una mayoría política, social y sindical que con la determinación necesaria luche por tal objetivo."

**Motivos:**

Pensamos que debe quitarse la referencia a organización autónoma, ya que no corresponde a lo que es y debe de ser una Organización Sindical.

Estamos entrando a afirmar nuestra no alineación política y esto nos conduce, inevitablemente, a preferir, para lograr la mejora de las condiciones de vida de los trabajadores y trabajadoras, métodos que equivalen a descafeinar nuestra lucha frente al capital y a los Estados.

## 37. Paragrafoa. 8. Orria.

**Proposamena:**

Erredakzio berria:

"Fase politiko honetan agertutako aldagai berriek ez dute LABek Euskal Herrian bakea, demokrazia eta burujabetza lortzeko prozesua sendotu eta bultzatzeko, eta horretarako, helburu horren alde tinko borrokatuko den gehiengo politiko, sozial eta sindikala proiektu politiko zehatz baten inguruan egituratzeko konpromiso sendoa ezertan aldatzen."

**Zergatiak:**

Gure ustez kendu egin behar da erakunde autonomoaren aipua, ez baitagokio holakorik egitea erakunde sindikala dena eta izan behar duenari.

Gure lerrokatze politikorik eza adierazten ari gara eta horrek langileen bizi-baldintzak hobetzeko kapitalaren eta Estatuen aurkako gure borroka deskafeinatzen duten metodoak nahiago izatera garamatza.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Manuel Calvo eta Joseba Ortiz de Lejarazu. Lautada-Gorbeia. Araba.*

## 36. EMENDAKINA
## Párrafo 38. Página 9.

**Propuesta:**

Quitar en la primera línea "estrategia" quedando el texto así: "LAB apuesta por crear mecanismos de interdependencias..." y seguir hasta el final.

## 38. Paragrafoa. 9. Orria.

**Proposamena:**

"Estrategia" hitza kentzea. Testua honela gelditu litzateke: "LABek indar abertzale eta aurrerakoien artean menpekotasuneko bitartekoak sortzearen aldeko ..."

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Pako Aranburu. Gipuzkoa.*



## 37. EMENDAKINA
## Párrafo 41. Página 9.

**Propuesta:**

"La jornada de huelga y movilización del 27 de enero, planteada desde LAB y la Izquierda Abertzale como un salto cualitativo ante la imposibilidad de articular respuestas unitarias de calado, no se ha compartido y/o entendido por la totalidad de la Izquierda Abertzale y nos ha hecho aparecer en una posición débil ante los partidos que no están participando y sectaria con partidos y sindicatos que lo están haciendo."

**Motivos:**

Creemos que este análisis se acerca mejor a la realidad, cuando menos a la que vive esta sección sindical internamente y en su entorno.

## 41. Paragrafoa. 9. Orria.

**Proposamena:**

"Urtarrilaren 27ko greba eta mobilizazio eguna, LABek eta Ezker Abertzaleak deitua tamainako erantzun bateruak antolatzeko ezintasunari aurre egin eta jauzi koalitatibo bat emateko, ez du lortu Ezker Abertzale osoaren baitan onespena edota adostasuna eskuratzea, eta horren ondorioz, jarrera ahula izateko itxura eman dugu parte hartzen ari ez direnen artean, eta jarrera sektarioa, parte hartzen ari diren alderdi eta sindikatuen aurrean."

**Zergatiak:**

Gure ustez, azterketa honek hobe jasotzen du bizi dugun egoera. Gure sail sindikal honen barruan eta gure inguruan bizi duguna bai behintzat.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Juan Carlos Goikoetxea. Arabako Diputazioa.*

## 38. EMENDAKINA
## Párrafo 43. Página 9.

**Propuesta:**

Modificar el texto quedando así:

"Instrumentos como la huelga, paros ciudadanos y laborales parciales, huelgas de hambre y encierros masivos tienen que ser objeto de reflexión entre agentes políticos, sindicales y sociales desde un punto de partida básico: responder a las necesidades de movilización y presión social de cada momento."

**Motivos:**

Acuerdos y compartir tenemos muchos ejemplos recientes que han supuesto freno y con sus problemas en el conjunto de la Izquierda Abertzale. Para mí mucho más eficaz es llegar a planteamientos comunes en la IA (aquí si que hay que compartir entre todos) y luego cada uno llevar hacia delante en su espacio natural.

## 43. Paragrafoa. 9. Orria.

**Proposamena:**

Testua aldatzea honela utziz:

"Greba, lan-uzteak, gose-grebak eta itxialdi jendetsuak bezalako tresnak eragile politiko, sindikal eta sozialen arteko gogoeta-gai izan behar dute, oinarrizko abiapuntu batetik beti ere: unean uneko mobilizatzeko eta gizarte-presioa egiteko premiei erantzutea."

**Zergatiak:**

Akordioak eta bestelako eragileekin baterako jardunak oztopo izan zaizkigu askotan, eta arazoak eragin dituzte Ezker Abertzale osoaren baitan. Nire ustez askoz eraginkorragoa da Ezker Abertzalearen baitan planteamendu bateratuak adostea (hemen bai denon artean erabaki behar dugula gure norabidea), eta ondoren bakoitzak berezkoa duen guneetan planteamendu horiek gauzatzea.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Pako Aranburu. Gipuzkoa.*

## 39. EMENDAKINA
## Párrafo 50. Página 10.

**Propuesta:**

Añadir al final del anexo:

"El proceso generado a partir del acuerdo de Lizarra es a nuestro entender el único camino, que existe hoy en día, por el que podemos avanzar en la superación del conflicto en clave de soberanía.

Con independencia de que no se hayan articulado las expectativas generadas, o que no haya existido una correcta relación entre la ilusión generada y el compromiso adquirido, o que no hayamos sido capaces de reflejar el incremento en votos en un incremento o desarrollo organizativo planteamos que el mantenimiento y desarrollo del acuerdo de Lizarra es una de las tareas fundamentales que tiene que asumir LAB y lógicamente quién diga estar en consonancia con nuestros planteamientos.

A partir de la unidad de acción ELA-LAB, resto de acuerdos con el espacio sindical vasco, acuerdos de colaboración institucional, Udalbiltza..., se ha creado una forma de trabajar que hace que la inmensa mayoría de la Izquierda Abertzale vea como un hecho muy positivo la apuesta por el camino de la colaboración y la acumulación de fuerzas frente a estrategias anteriores.

No podemos olvidarnos de la realidad plural que es Euskal Herria, con diferentes opiniones sobre el modelo de país que queremos construir, diferentes sensibilidades sobre todos y cada uno de los problemas o actuaciones diarias. Por lo que debemos apostar por lo plural en el proceso de resolución.

Nos debemos decantar por la vía de la confrontación de las ideas en el plano público como única vía de superación del conflicto y debemos denunciar todas las injerencias externas que traten de mediatizar el proceso, todo ello con independencia de quien las efectúe.

Si realizamos una apuesta clara por avanzar en el proceso por vías democráticas, si planteamos que el resto de acciones no sólo no ayudan, si no que impiden avanzar debemos denunciarlas con

total rotundidad.

Si el sindicato está convencido de los planteamientos anteriores, deberemos intentar compartirlos con el máximo número de personas y organizaciones posible, pero teniendo siempre en cuenta la caracterización del sindicato como organización democrática y autónoma.

Denunciamos enérgicamente la actitud del gobierno del Estado que lo único que ha pretendido durante los últimos tiempos ha sido torpedear el proceso y esto lo constatamos claramente con cuestiones clave como: caso Geresta, detención de los/as interlocutores/as, apuesta por la vía represiva, no disposición a contactar con ETA, no admitir las peticiones de la sociedad e incluso de las administraciones en el tema de los/as presos/as.

Planteamos con la misma rotundidad que la denominada Kale Borroka, lejos de colaborar en la profundización en el proceso, supone una enorme traba para quienes pretendemos continuar acumulando fuerzas en torno al proceso resolutivo. No siendo ésta una afirmación gratuita, ya que resulta evidente que la Kale Borroka ha impedido percibir con completa nitidez a la sociedad vasca nuestro compromiso con las vías civiles como única forma de superar el conflicto, además de haberse utilizado como excusa por parte de algunos sectores a la hora de articular compromisos. Por otra parte, no parece que con su existencia se puedan marcar puntos de avance.

Pero no podemos quedarnos ahí, también es necesario denunciar con la misma intensidad y dejar claro nuestro desmarque de las acciones realizadas por ETA en los últimos tiempos: comunicado de fin de tregua, atentado de Madrid y atentado de Gasteiz. El accionar de ETA ha producido una clara desilusión en gran parte de esa gente que se nos había vuelto a acercar en los últimos tiempos y a fin de cuentas ha resultado ser la excusa necesaria para el nacionalismo español en esta nueva ofensiva contra el nacionalismo vasco. Dando por otra parte fortaleza a esos sectores del PNV que planteaban reticencias a la colaboración abertzale. Habrá que esperar algún tiempo para poder realizar aportaciones más completas, pero no sería de extrañar que como consecuencia de las últimas acciones de ETA se haya dinamitado el proceso que gira en torno a Lizarra.

Se hace necesario paralizar la Kale Borroka, que ETA declare un alto el fuego indefinido y que volviendo a una situación similar a la que se vivía en noviembre pasado podamos junto al conjunto de fuerzas de Lizarra articular medidas de presión que exijan al nuevo gobierno el avanzar en términos democráticos en la solución del conflicto.

Nos hacemos eco del planteamiento: "La lectura correcta de estos acontecimientos haría ver a cualquier partido que actúe dentro de la lógica basada en los análisis políticos, que los estadios de represión y de fuerza están agotados y que la solución es el diálogo y los acuerdos con contenidos políticos."

En cuanto a la utilización del término condena al referirnos a cualquiera de los últimos atentados de ETA, sé que no es lo fundamental, pero no me parece suficiente el rechazo. Debemos manifestar que no es ésta nuestra responsabilidad y que estas acciones, lejos de ayudar a profundizar en el proceso, lo entorpecen, pero estas declaraciones deben ser lo suficientemente claras como para que cualquier persona afiliada las entienda y no en términos ambiguos como dirigiéndonos a analistas políticos, militantes o personas organizadas.

En este momento tan importante y crucial para la construcción nacional los atentados no sólo no ayudan, sino que perjudican y alejan a gran cantidad de personas que se habían ido distanciando de nuestro proyecto y a raíz de la Tregua habían decidido volver a formar parte de él (basta con mirar el número de votos obtenidos en las últimas elecciones).

Por lo tanto, si estas acciones perjudican, debemos analizarlas igual que el resto de actuaciones que nos impiden avanzar, es decir debemos denunciarlas.

A fin de cuentas el debate se centra en la posibilidad de que existan dos interpretaciones diferentes sobre los caminos a utilizar en la solución del conflicto. Una, que creo que es mayoritariamente apoyada, que se puede resumir en que partiendo de que actualmente el conjunto de la Izquierda Abertzale no es más que un porcentaje minoritario de esta sociedad vemos como fundamental el apostar por la acumulación de fuerzas y el abrirnos a otros sectores en clave de colaboración como la única forma de superar la actual situación. Y, por otra parte, quienes plantean que no podemos esperar nada del resto de sectores abertzales y que la única vía de solución es continuar con el enfrentamiento político militar con el Estado y quienes se oponen al proyecto de sociedad de la Izquierda Abertzale.

En el convencimiento de que el proceso generado en torno a Lizarra abre unas posibilidades ciertas de solución al conflicto en clave de soberanía y si hoy por hoy no vemos ninguna alternativa viable, debemos insistir en profundizar en él y como planteamos que en el momento actual el accionar de ETA imposibilita el desarrollo de este trabajo, emplazamos a la organización a la declaración de una tregua indefinida."

## 50. Paragrafoa. 10. Orria.

**Proposamena:**

Eranskinaren amaieran gehitu:

"Lizarrako hitzarmenaren ondoren sortutako prozesua da gure ustez gaur egun dagoen bide bakarra, gatazka burujabetzaren bidez gainditzea ahalbidetuko digun bakarra.

Hasiera batean sortutako itxaropen guztiak bete ez badira ere, edo sortutako ilusioaren eta hartutako konpromizuaren arteko oreka egokirik egon ez bada ere, edo botoetan izandako gorakadaren bidez antolakuntza aldetik gora egin edo garatzeko gai izan ez bagara ere, gure ustez Lizarrako hitzarmenari eustea eta hitzarmen hori garatzea izan behar du LABek bere gain hartu beharreko eginkizun nagusienetako bat. Eta, jakina, gure planteamenduekin bat datorrela esaten duenak ere bere gain hartu beharko du.

ELA-LABen arteko ekintza-batasunaren, euskal sindikatuen arteko gainerako hitzarmenen, erakundeekiko lankidetzarako hitzarmenen, Udalbiltza eta abarren bidez lan egiteko modu jakin bat sortu da, eta hala, Ezker Abertzalearen gehiengoari txalogarria iruditzen zaio lankidetzaren eta indar-metaketaren bidez, iragandako estrategien aldean.

Ezin dugu ahaztu Euskal Herria gizarte plurala dela, iritzi ugari daudela sortu nahi dugun herriaren ereduari buruz, eta sentsibilitate ugari daudela halaber gure herriko eguneroko arazo eta jardunen inguruan. Beraz, pluralaren alde egin behar dugu konponketa-prozesuan.

Honenbestez, baztertu egin behar ditugu erabat gure burua legitimatu edo ebaluatzerako garaian, gizartearen aurrean erakutsitako jarrerak, egia biribilaren jabe izango bagina bezala jokatu izan dugunean.

Ideiak jendaurrean alderatzearen bideari heldu behar diogu, gatazka gainditzeko bide bakartzat, eta prozesua baldintzatzen saiatzen diren kanpo-injerentzia oro salatu behar ditugu, edonork egiten dituela ere.

Prozesua bide demokratikoetan barrena abiaraztearen aldeko jarrera garbia adierazten badugu, gainerako ekintzek ez laguntzeaz gain aurrera egitea oztopatu egiten dutela badiogu, salatu egin behar ditugu argi eta garbi.

Sindikatuak aurreko iritziari eusten badio, ahalik eta jende eta erakunde gehienengana helarazten saiatu beharko dugu, betiere sindikatua erakunde demokratiko eta autonomoa dela gogoan izanik.

Kemenez salatu nahi dugu Estatuko gobernuaren jarrera, azkèn hilabeteetan izan duen helburu bakarra prozesua oztopatzea izan baita, hainbat datuk garbiro erakusten dutenez: Geresta kasua, mintzakideen atxiloketa, erre-

presioaren aldeko apustua, ETArekin harremanetan jartzeko asmorik eza, gizarteak edota administrazioek presoen inguruan egindako eskakizunei entzungor egitea.

Baina kemen berberaz salatu nahi dugu kale borrokak prozesuan aurrera egitea ahalbidetu beharrean, erabakitze-prozesuaren inguruan indarrak metatzen dihardugunontzako traba itzela dela. Hitz hauen ez ditugu besterik gabe botatzen, izan ere, agerikoa baita kale borrokak galarazi egin diola euskal gizarteari, guretzat gatazka gainditzeko bide bakarra bide zibilak direla argi eta garbi ikustea. Gainera, hainbat sektorek aitzakiatzat erabili izan dute borroka mota hau konpromizuak hartzeko garaian. Bestalde, ez dirudi kale borroka dagoen bitartean aurrerapenik lor daitekeenik.

Baina ezin dugu horretara mugatu, beharrezkoa baita ETAren azken ekintzak ere - su-etenaren hausturaren komunikatua, eta Madril eta Gasteizko atentatuak - kemen berberaz salatzea, eta ekintza hauekin bat ez gatozela adieraztea. ETAren jardunak desilusio handia sortu du azken boladan hurbildu zitzaigun jende asko eta askoren artean, eta nazionalismo espainiarrak euskal nazioalismoaren aurka ekin dion oldarraren aitzakia ezinhobea izan da. Gainera, abertzaleokiko lankidetza zela eta mesfidatu zeuden EAJko sektoreen errezeloak sendotu egin ditu. Beraz, denbora-puska bat itxoin beharko dugu ekarpen osoagoak egiteko, baina ez litzateke harritzekoa ETAren azken ekintzen ondorioz Lizarraren inguruko prozesua leherraraziko balitz.

Beharrezkoa da kale borroka geldiaraztea, ETAk su-eten mugagabea aldarrikatzea eta azaroan bizi genuenaren antzeko egoerara itzulita, Lizarrako gainerako indarrekin batera gobernu berriari gatazka bide demokratikoen bidez konpontze aldera aurrera egiteko presiobideak eratzeko.

Planteamendua jaso nahi dugu: "Gertakari hauen okerreko irakurketak agerian utziko lieke azterketa politikoen arabera diharduen alderdi politiko guztiei agortuta daudela errepresioaren eta indarraren estadioak, eta konponbidea elkarrizketa eta eduki politikoz hornitutako hitzarmenak direla".

ETAren azken atentatuak direla eta, gaitzespen hitza erabiltzeari dagokionez, badakit funtsezko arazoa hori ez dela, baina ez zait aski iruditzen ekintza horiek arbuiatzea. Izan ere, ekintza horiek gure erantzukizuna ez direla adierazi behar dugu, eta gainera, prozesua sakontzeko lagungarriak ez izateaz gain, oztopatu egiten dutela nabarmendu behar dugu, sindikatuko edozein kidek ulertzeko bezain modu argian, eta ez analista politikoei, militanteei edo antolatuta dabiltzan pertsonei zuzenduko bagina bezala.

Nazio-eraikuntzarako hain garrantzitsu eta erabakigarria den une honetan, atentatuek ez laguntzeaz gain, kaltetu egiten dute, eta gure proiektutik aldenduta zebilen, baina su-etenaren ondoren berriro ere gurekin bat egitea erabaki zuen jende asko (aski da azken hauteskundeetan lortutako emaitzei begiratzea) urrutiratu egiten dute berriro ere.

Beraz, ekintza hauek kalte egiten badute, aurrera egitea oztopatzen diguten gainerako ekintza guztien moduan aztertu behar ditugu, eta salatu egin behar ditugu hortaz.

Azken batean, hauxe da eztabaidaren muina: gatazka konpontzeko erabili beharreko bideen inguruan bi interpretazio ote dauden. Bi interpretazio horien artean nire ustez gehiengoak bultzatzen duena, honela laburbil genezake: gaur egun Ezker Abertzalea gizarte honetako gutxiengoa izanik, funtsezkoa da indar-metaketari ekitea eta beste sektore batzuei eskuak zabaltzea, haiekin batera elkarlanean jarduteko, egungo egoera gainditzeko modu bakarra hori baita. Beste ikuspegiak ordea uste du ezin dugula ezer espero gainerako sektore abertzaleengandik, eta gatazka konpontzeko bide bakarra Estatuarekiko eta Ezker Abertzalearen gizarte-ereduaren aurka daudenekiko borroka politiko-militarrari eutsi behar zaiola beraz.

Lizarraren inguruan sortutako prozesuak gatazka burujabetzaren bidetik konpontzeko aukera argiak zabaltzen dituelakoan gaude, eta hala, gaur-gaurkoz alternatiba bideragarririk ikusten ez badugu, prozesu horretan sakontzen jarraitu beharko dugu. Gaur egun ETAren jarduna lan hau garatzea eragozten duela uste dugunez, su-eten mugagabea aldarrikatzeko deia egiten diogu erakundeari."

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Damen Agirremota. Bizkaia.*

# 3. Independentzia: Demokrazia politiko eta sozialaren alternatiba
# 3. Independencia: una alternativa para una democracia política y social

## Sarrera
## Introducción

### 40.- EMENDAKINA
### 161. Paragrafoa. 27. Orria.

· Proposamena

Bigarren lerroan "nortasun kulturalaren" esaten duen horretan, hau jarri: "Nortasun linguistiko eta kulturalaren..."

### Párrafo 162. Página 28.

Propuesta:

Insertar en la segunda linea donde dice "de la identidad cultural", lo siguiente: "de la identidad lingüística y cultural"

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Euskara Batzordea.( Agirre, Juanjo Garnika, Jabi Iriarte, Andoni Jauregialtzo, Iñaki Marko, Iñaki Narbaiza, Anaje) Altsasu (Nafarroa).*

## 41.- EMENDAKINA
## Párrafo 163. Página 28.

· Propuesta:

Modificar las dos últimas líneas, de forma que queden redactadas así: "... un flujo económico, social y cultural de intercambios con nuestros vecinos del norte y del sur, del este y del oeste, especialmente con los pueblos más próximos de la Península Ibérica y del Estado francés."

· Motivos:

Por una parte, los flujos deben ser de ida y vuelta (de intercambio), y por otra, al este y al oeste, tenemos además de Aragón, a Catalunya y además de Cantabria y Asturias, a Galicia y Portugal.

## 162. Paragrafoa. 27. Orria.

Proposamena:

Azkeneko bi lerroak aldatzea, honela geratzeko:

"...ipar eta hegoaldeko, eki eta mendebaldeko gure auzoekin (Iberiar penintsula eta Estatu frantziarreko gertueneko herriekin, bereziki) harreman ekonomiko sozial eta kulturalak."

Zergatiak:

Alde batetik, joan-etorriko harremanak izan behar dute; bestetik eki eta mendebaldean Aragoa, Katalunia, Asturias eta Kantabriaz gainera Galizia eta Portugal ditugu.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Joseba González. Telefónica. Bilbo (Bizkaia).*

## 42.- EMENDAKINA
## Párrafo 164. Página 28.

· Propuesta:

En la tercera línea, después de "...construcción nacional y social", añadir "y la pervivencia de nuestro pueblo en la historia."

· Motivos:

Creo que es necesario, especialmente para quienes nos lean desde otros pueblos, dejar bien sentado, que la condición necesaria para que nuestro pueblo pueda pervivir a lo largo de la historia, es la construcción nacional de Euskal Herria.

## 163. Paragrafoa. 27. Orria.

**Proposamena:**

Hirugarren lerroan, "eraikuntza nazional eta sozial" hitzen ondoan, erantsi: "eta gure herriaren iraupen historikoa".

**Zergatiak:**

Ene ustez beharrezkoa da, beste herrietatik testu hau irakurtzen dutenentzat bereziki, historian bizirik irauteko gure herriak bete behar duen ezinbesteko baldintza eraikuntza nazionala dala.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Joseba González. Telefónica. Bilbo (Bizkaia).*

# 3.1. Egungo Estatuak
# 3.1. Los Estados actuales

## 43.- EMENDAKINA
## Párrafo 165. Página 28.

· **Propuesta:**

Sustituir el párrafo por:

"La hegemonía política de la burguesía se consolida en torno a los siglos XVIII y XIX, logrando constituir un nuevo Estado-nación en cada uno de los distintos Estados europeos en los que reemplaza al orden feudal y a los regímenes políticos absolutistas.

En los Estados europeos gobernados por monarquías imperialistas, estos cambios también llamados revoluciones burguesas, crearon un tipo de Estado gran nacional que englobaba bajo el poder de la gran nación dominante a las naciones que ya habían sido sometidas previamente por las armas de las respectivas Coronas e Imperios. Es el caso de Inglaterra, Francia, España y Alemania.

Bastantes naciones europeas que habían estado dominadas por Coronas e Imperios consiguen recuperar su Estado soberano, así Holanda, Portugal, Noruega, Finlandia, Irlanda, Islandia y Polonia; convirtiéndose algunos de los Estados dominantes en Estado-nación, mononacional, como es el caso de Austria, Hungría, Dinamarca y Suecia. Y por otro lado está el caso de los Estados europeos de Navarra y Escocia, que todavía continúan dominados bajo los tres Estados gran nacionales de la Europa occidental, por España y Francia la primera, y por Inglaterra la segunda."

## 164. Paragrafoa. 27. Orria.

**Proposamena:**

Dagoen paragrafoaren ordez, hurrengoa jarri:

"Burgesia hegemonia politikoa 18. eta 19. mendeetan finkatzen da, feudalismoa eta erregimen politiko absolutistak eraitsitako Estatu europar bakoitzean nazio-estatu berri bat sortuz.

Monarkia inperialistek gobernaturiko Estatu europarretan aldaketa hauek (iraultza burgesak) tokian tokiko monarkia eta inperioen armen bidez aurretiaz menpean hartutako nazioak jasotzen zituen nazio berri menperatzailearen boterepean biltzen zuen Estatu nazional plegu berria sortu zuten. Horren adibideak dira Ingalaterra, Frantzia, Espainia eta Alemania."

Monarkia eta inperioek zapalduta egonak ziren Europar nazio askotxok lortu zuten Estatu subiranoak berpiztea (Holanda, Portugal, Norvegia, Finlandia, Irlanda, Islandia eta Polonia); Estatu menperatzaile harietako batzu nazio-estatu bilakatu ziren, hala nola, Austria, Hungaria, Danimarka eta Suedia. Beste aldetik, Nafarroa eta Eskozia Estatuen kasua dugu, oraindik ere mendebaldeko Europako hiru Estatu haundien (Espainia, Frantzia eta Ingalaterra) azpian segitzen dutenak."

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Patxi Erdozain. Hezkuntza. Iruñea (Nafarroa).*

---

## 44.- EMENDAKINA
## Párrafo 166. Página 28.

**· Propuesta:**

Sustituir el párrafo por:

"En este proceso nuestro Estado europeo histórico, denominado Navarra como nación política y Euskal Herria como nación cultural, que fue privado de su independencia en el siglo XVI, no consiguió reunificar al conjunto de la fuerza social de los distintos territorios en que fue dividido por las Administraciones ocupantes, tras las sucesivas conquistas de su territorio, y en consecuencia no pudo recuperar su soberanía estatal, como nación. El papel de la burguesía comercial e industrial fue conformarse con administrar los restos de la estatalidad propia (los fueros) bajo la tutela del Estado gran nacional español, lo que ha abortado todos los intentos de liberación del Estado-nación de los vascos."

## 165. Paragrafoa. 27. Orria.

**Proposamena:**

Dagoen paragrafoaren ordez, hurrengoa jarri:

"Prozesu horretan barrena, - Nafarroa, nazio politikotzat eta Euskal Herria nazio kulturaltzat - gure Estatu europar historikoari independentzia irautzi zioten XVI. mendean eta, administrazio okupatzaileek hainbat lurraldetan zatikaturik, bere estatu-subiranotasuna berreskuratzerik izan ez zuen. Burgesia komertzial eta industrialaren eginkizu-

na, bertako estatuzkotasunaren ondakinak administratzea besterik ez zen izan, Espainiako Estatu pannazionalaren tutoretzapean: horrek euskaldunen nazio-estatua askatzeko saiakera guztiak zapuztu ditu."

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Patxi Erdozain. Hezkuntza.I ruñea (Nafarroa).*

## 45.- EMENDAKINA
## Párrafo 171. Página 29

· **Propuesta:**

Después de "Tras la división de Checoslovaquia (Chequia, Eslovaquia)" añadir:

"La fragmentación interesada de Yugoslavia por las potencias capitalistas de la OTAN. Y, particularmente, por intereses geoestratégicos de Alemania y EE.UU."

· **Motivos:**

Ya sabemos que sobre este particular existen opiniones no siempre coincidentes en la Izquierda Abertzale. Partiendo del derecho innegable que corresponde a todos los pueblos del mundo a su emancipación y su autodeterminación, queremos resaltar, sin embargo, que ni toda autodeterminación es segregación (véase el reciente caso alemán) ni toda segregación es autodeterminación.

Este es el caso de la ex-Yugoslavia, en el que sin negar el derecho que asiste a los pueblos que la componen a definir su futuro en libertad, hemos comprobado que el Imperialismo, a veces, se vale de este mismo concepto, cuando le interesa, para quebrar pueblos y revoluciones (lo mismo hacen ya los españoles cuando hablan del Derecho a la Autodeterminación de Araba o de Nafarroa).

Por eso creemos que resultando problemático abordar ahora esta cuestión en un documento sindical (pareciera más oportuno hacerlo en el debate político estricto), sí conviene dejar claras algunas supuestas autodeterminaciones que no lo son en absoluto.

## 170. Paragrafoa. 28. Orria.

**Proposamena:**

Txekoslovakiaren (Txekia eta Eslovakia) ondoren hurrengoa gehitzea: "NATOko potentzia kapitalistek eragindako interesez beteriko Jugoslaviaren zatiketa; batez ere, Alemania eta Estatu Batuen interes estrategikoengatik-"

**Zergatiak:**

Badakigu puntu honi buruz denok ez gatozela bat Ezker Abertzalean. Munduko herri guztiei bere burua askatu eta determinatzeko eskubidea zor zaiela abiagune hartuta, hurrengoa nabarmendu nahi dugu: autodeterminazioa ez da beti zatiketa (ikus Alemaniako arestiko kasua) ez eta zatiketa beti autodeterminaziozkoa.

Horixe da Jugoslavia zenaren kasua: bera osatzen zuten herriei askatasunezko etorkizuna eratzeko eskubidea ukatu gabe ere, egiaztatu dugunez inperialismoek kontzeptu horixe baliatzen du interesgarria zaionean herriak eta iraultzak desegiteko (gauza berbera egiten dute espainolek Nafarroa edo Arabako autodeterminazioaz ari direnean).

Horrexegatik uste dugu agiri sindikal batean kontu hau jorratzea problematikoa bada ere (egokiago litzateke eztabaida politiko hutsean egitea) balizko autodeterminazio batzu salatu behar dira horrelakorik ez baitira inondik ere.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Javier Ramos. Administrazioa. Bilbo (Bizkaia).*

## 46.- EMENDAKINA
## Párrafo 173. Página 30.

**· Propuesta:**

Convertir el punto final del párrafo en punto y seguido, y continuar así: "Todo ello con independencia de la extracción ideológica que en cada caso hayan podido tener o tengan, las principales fuerzas que han liderado o en su caso abanderado dichos movimientos emancipadores."

**· Motivos:**

Creo que también es bueno no dejar en el aire el distanciamiento y rechazo que hacemos en esta cuestión, de determinadas fuerzas políticas en tanto que tales fuerzas políticas, que a pesar de tener ideologías nacionalista-imperialistas y racistas, al abanderar un proceso emancipador, han podido intentar dar ante el mundo la imagen de organizaciones políticas emancipadoras.

## 172. Paragrafoa. 29. Orria.

**Proposamena:**

Azken puntuaren ondoren honela segitzea: "Guzti hori, askapen-mugimendu horiek lideratu dituzten indar nagusiek izango zuten edo orain duten ideologia gora behera."

**Zergatiak:**

Ene ustez puntu honetan argi ta garbi utzi behar dugu indar politiko jakin batzuetatik urruti kokatzen garela nahiz eta ideologia nazionalista-inperialista arrazistakoak izan, askapen-prozesuaren baten aintzindari agertzean, baliteke jendearen aurrean erakunde politiko askatzaile gisa aurkeztea.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Joseba González. Telefónica. Bilbo (Bizkaia).*

## 47.- EMENDAKINA
## Párrafo 174. Página 30.

· Propuesta:

Modificar. Donde dice "...operó de manera internacional" debe decir "estatal"; y donde dice "...tenía esencialmente un contenido nacional" debe decir "tenían ese contenido."

· Motivos:

En realidad parece un lapsus linguae, pero es fácilmente comprensible que el autor quería expresar que el modo de producción hasta la 2ª G.M. es un modo normalmente estatal (no nacional, pues, como es obvio, el Estado español no es una nación pero sí un mercado de producción, autárquico por cierto, hasta el ingreso en la UE; y, sin embargo, Euskal Herria, que sí es una nación, no tiene aún Estado o marco propio de producción ni antes de la 2ª G.M. ni por ahora.

## 173. Paragrafoa. 29. Orria.

Proposamena:

Aldatzea: "Nazioartean" beharrean, "Estatuan"; eta "funtsez, izaera nazionalekoak ziren" dioen tokian "eduki hori zuten" jarri behar da.

Zergatiak:

Egia esan hankasartze bat dirudi, baina ulergarria da txostengileak esan nahi izatea II. Mundu Gerrara bitartean ekoizpen-eredua estatu-mailakoa zela, ez nazio-mailakoa ordea, agerikoa baita Espainiako Estatua ez dela nazio bat, ekoizpen-merkatu bat baizik, erabat autarkikoa EBan sartu arte, eta Euskal Herria, berriz, nazioa izanik ere, ez du berezko ekoizpen-merkaturik izan ez II. Mundu Gerraren aurretik ezta orain ere.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Javier Ramos. Administrazioa. Bilbo (Bizkaia).*



## 48.- EMENDAKINA
## Párrafo 177. Página 30.

· Propuesta:

En la segunda línea después de la palabra "...representada...", añadir la palabra "fundamentalmente".

· Motivos:

La Unión Europea no es el único marco supraestatal que funciona en Europa, hay otros.

### 176. Paragrafoa. 29. Orria.

**Proposamena:**
"...gorpuzten duena"ren ondoren, "batipat" jartzea.

**Zergatiak:**
Europar Batasuna ez da Europa mailan dagoen marku supraestatal bakarra, badago besterik.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Joseba González. Telefónica. Bilbo (Bizkaia).*

## 49.- EMENDAKINA

### 177. Paragrafoa. 30. Orria.

· **Proposamena:**
Hirugarren lerroan "kulturaren garapena" esaten duen horretan , hau jarri: "kulturaren eta hizkuntzaren garapena ".

### Párrafo 178. Página 31.

**Propuesta:**
Donde dice "desarrollo cultural" sustituir por "desarrollo cultural y lingüístico".

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Euskara Batzordea.(Agirre, Juanjo Garnika, Jabi Iriarte, Andoni Jauregialtzo, Iñaki Marko, Iñaki Narbaiza, Anaje). Altsasu (Nafarroa).*

## 50.- EMENDAKINA

### Párrafo 179. Página 31.

· **Propuesta:**
Donde pone: "En el Reino Unido el nacimiento...".
Poner: "En el Reino Unido el renacimiento...".

· Motivos:

En el Reino Unido el nacimiento del sentimiento nacional no es un elemento novedoso de estas últimas décadas.

### 178. Paragrafoa. 30. Orria.

Proposamena:

"Erresuma Batuaren sorrera" jartzen duenean, hurrengoa jarri: "Erresuma Batuaren birsorkuntzan".

Zergatiak:

Erresuma Batuan naziotasuna sortzea ez da azken urteotako elementu berria.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Karlos Salvarrey. Osasungintza. Bilbo. (Bizkaia).*

## 3.2. Independentzia interdependentziazko barruti politiko-ekonomikoan

## 3.2. La independencia en un cuadro político-económico de interdependencia

### 51.- EMENDAKINA
### Párrafo 191. Página 33.

· Propuesta:

Sustituir el párrafo (154) por: "- Elegir anualmente a las y los representantes del Eskualde para el Biltzar Nazionala.".

**Motivos:**

Creo que los criterios deben ser claros y en consecuencia evitar redacciones que puedan tener varias interpretaciones. En mi opinión es necesario marcar una periodicidad en la elección.

## 154. Paragrafoa. 28. Orria.

**Proposamena:**

154. Paragrafoa ondorengoarengatik ordezkatzea: "Biltzar Nazionalerako Eskualdeko ordezkariak urtero hautatzea."

**Zergatiak:**

Ene ustez, irizpideak argi eta garbi azaldu behar dira, anbiguotasunei saihets eginez: hauteskundeen maiztasun zehatza finkatu behar dela iruditzen zait.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Pilar Iñarritu. El Corte Ingles Enpresa Batzordeko kidea. Bizkaia.*

---

# 74.- EMENDAKINA
# Párrafo 155. Página 29.

**Propuesta:**

Introducir dos nuevos párrafos:

"- Elegir a los representantes que acudan al Biltzar Nagusia.
- Discutir y aportar a las diferentes estructuras su visión sobre temáticas generales y especificas."

**Motivos:**

Creo que es interesante que la ponencia recoja estos puntos que de un modo u otro son los que están latentes en todas las ponencias de este Biltzar Nagusia.

## 155. Paragrafoa. 28. Orria.

**Proposamena:**

Beste bi paragrafo sartzea:
"- Biltzar Nagusira joango diren ordezkariak hautatzea.
- Arazo zehatz zein orokorrei buruz dituen ikuspegia eztabaidan jorratu eta egiturei jakinaraztea."

**Zergatiak:**

Ene ustez, interesgarria da Biltzar Nagusi honetako txosten guztietan agerian nahiz ezkutuan dauden kontu horiek txosten honek jasotzea.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Pilar Iñarritu. El Corte Ingles Enpresa Batzordeko kidea. Bizkaia.*

## 6.2. Sektore Egitura: eginkizun eta zereginak
## 6.2. Estructura Sectorial, funciones y composición

### 75.- EMENDAKINA
### 159. Paragrafoa. 28. Orria.

**Proposamena:**

Parrafoaren ostean zera eranstea: "eta gure ingurugiroa eta langileen osasuna defendatzea".

### Párrafo 159. Página 29.

**Propuesta:**

Después de "juventud", añadir: "y de la defensa de nuestro medio ambiente y la salud de las y los trabajadores."

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Lola Amigo, Silver Arregi, Yolanda Espina, Iñaki Moreno, Ane Padilla y Juanjo Rodriguez. Lan Osasuna eta Ingurugiro Batzordea.*



### 76.- EMENDAKINA
### Párrafo 168. Página 30.

**Propuesta:**

Pone: "La presencia del Sektoreko...y de los Sektoreko..." Poner: "La presencia de la o del Sektoreko... y de las o los Sektoreko..."

### 168. Paragrafoa. 29. Orria.

**Proposamena:**

Euskarazko bertsioan berdin mantentzen da.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Karmen Amezua. Osakidetza Enpresako kidea. Bizkaia.*

## 77.- ENMENDAKINA
## Párrafo 169. Página 30.

**Propuesta:**

Donde dice: "Sektoreko Eskualdeko ordezkariak" debe decir: "Sektoreko Herrialdeko ordezkariak".

**Motivos:**

Considero que la desaparición de la estructura territorial de herrialde no debe hacernos caer en la tentación de lo más fácil, esto es, que no exista estructura de herrialde en ningún ámbito. Las estructuras no son elementos ni simétricos ni estéticos que hay que cuadrar por encima de la racionalidad y de la eficacia, máxime cuando las condiciones tanto en el seno de la clase trabajadora como dentro de la organización están demandando mayor realismo a la hora de dotarnos de una estructura, y por tanto, que el organigrama sea menos pretencioso, más claro en los planteamientos teóricos, pero al mismo tiempo que sea más eficaz y más pegado a las necesidades reales. Por mucho que nos empecinemos en rellenar un organigrama de arriba abajo, todos sabemos que estructuras como los Sektoreko Eskualdeko Idazkaritzak no van a constituir la base real de funcionamiento de los sectores en la actual coyuntura.

Desde que el sindicato decidió dotarse de una estructura sectorial frente a falsas alternativas que planteaban el alejamiento de LAB de los centros de trabajo, hemos ido dando pequeños pasos para llenar de contenido un funcionamiento sectorial que, querámoslo o no, tiene alrededor de la Negociación Colectiva, el elemento más importante de coordinación, agitación, información y expansión del sindicato hacia los trabajadores y trabajadoras, y viceversa. Pero es que además la realidad nos dice que la mayoría depende de convenios provinciales (de un 65 a un 70 % del total de la afiliación de LAB), o tienen en éstos una referencia normativa básica en sus relaciones laborales. Evidentemente existen dentro de LAB núcleos importantes de trabajadores y trabajadoras con convenios de ámbito superior o diferente al provincial, pero no es casual que la forma habitual de funcionamiento sectorial de los mismos tenga en el herrialde un elemento imprescindible de actuación, al constituir el marco nacional demasiado grande para resultar operativo, y el zonal excesivamente pequeño y localista para hacerlo viable con el actual número de afiliación y militancia.

Si estamos de acuerdo con esta realidad es impensable una estructura sectorial que pasa de la comarca al nacional obviando que la mayoría de la Acción Sindical se origina y/o se desarrolla en el ámbito provincial. Además la inclusión dentro de la estructura propuesta en la ponencia de esta aportación, no origina disfunciones imposibles de solventar. La misma explicación para la enmienda al punto 6.2.2.3.

## 169. Paragrafoa. 29. Orria.

**Proposamena**:
"Sektoreko Eskualdeko ordezkariak" jartzen duenean, "Sektoreko Herrialdeko ordezkariak" jarri behar du.

**Zergatiak:**
Ene ustez, Herrialdeko egitura suntsitzeak ez gaitu eraman behar jokaera errazenera, hau da, herrialdeko egiturarik inon ere ez izatera. Egiturak ez dira arrazionaltasun eta eraginkortasunaren gainetik, kosta ahala kosta, egokitu behar diren elementu simetriko edo estetikoak; are gutxiago langileriaren zein Sindikatuaren baitako baldintzek, geure burua egitura batez hornitzeko garaian, errealismoa eskatzen diguten honetan: organigramak ez du izan behar horren handi-nahia, planteamendu teorikoetan argiagoa izan behar du, eraginkorragoa, oinak lurrean dauzkala. Organigrama bat goitik behera betetzen ahaleginak eta bi egiten baditugu ere, ederki dakigu Sektoreko Eskualdeko Idazkaritzak eta antzeko egiturak ez direla izango egungo koiunturan sektoreen jardueraren egiazko oinarria.

LAB lantokietatik urrunduko zela iragartzen zuten sasi-alternatiben aurka, Sindikatuak bere burua sektore-egituraz hornitzea erabaki zuenetik urratsez urrats etorri gara bidean: gaurregun, nahita edo nahi izateke, Negoziazio Kolektiboa da bide horretan Sindikatutik langileenganako eta alderantzizko koordinazio, astinketa, informazio eta hedakuntza-elementu garrantzitsuena. Bestetik, errealitateak berak dioskunez, gehiengoa herrialde mailako hitzarmenen menpean dago (LABeko afiliatu guztien %65etik %70era bitarte) edo hitzarmen horiek oinarrizko arau-erreferentzia dituzte beren lan-harremanetan. Bistan denez, herrialdekoaz gainetiko edo bestelako hitzarmena duten langile askotxo ere badira LABen baina ez da txiripa hutsa horien ohiko jarduera sektorialaren ezinbesteko elementua herrialdea izatea: marko nazionala handiegia da operatibo izateko; eskualdekoa, berriz, txiki eta lokalistegia, egungo afiliatu eta militanteen kopuruaren arabera bideragarri bihurtzeko.

Adierazitako errealitate hori horrela dela pentsatzen badugu, ezinezkoa da eskualdetik nazionalerako jauzia egiten duen egitura sektoriala bururatzea, ekintza sindikal gehientsua herrialde mailan gorpuzten dela ahantzita. Bestetik, ekarpen honen txostenean proposaturiko egitura horren barnean sartzeak ez lituzke sortaraziko irtenbiderik gabeko disfuntzioak.

Azalpen honek berak balio du 6.2.2.3 atalari eginiko emendakinarentzat.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Juantxu Gómez. Bizkaiko Merkataritza Azpisektorekoa.*



## 78.- EMENDAKINA
## 169. Paragrafoa. 29. Orria.

**Proposamena:**
"Lan Osasuna eta Ingurugiroa arloko arduraduna" eranstea.

## Párrafo 169. Página 30.

**Propuesta:**
Incluir: "Lan Osasuna eta Ingurugiroa arloko arduraduna".

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Lola Amigo, Silver Arregi, Yolanda Espina, Iñaki Moreno, Ane Padilla y Juanjo Rodriguez. Lan Osasuna eta Ingurugiro Batzordea.*

## 79.- EMENDAKINA
## Párrafo 170. Páginas 30-31.

**Propuesta:**

(nuevo):

"Sektoreko Herrialdeko Idazkaritza. Su composición será flexible de acuerdo a sus específicas características, debiendo contar con al menos :

-Sektoreko Herrialdeko arduraduna.
-Responsable de Organización.
-Responsable de Negociación Colectiva.
-Responsables subsectoriales.
-Responsables de eskualdes.

Las tres primeras responsabilidades, formarán el Komite Exekutiboa."

## 170. Paragrafoa. 29. Orria.

**Proposamena:**

(atal berria):

"Sektoreko Herrialdeko Idazkaritza. Organo horren osakera malgua izango da, unean uneko ezaugarrien arabera. Hurrengo kideak izango ditu, gutxienez:

Sektoreko Herrialdeko arduraduna
Antolakuntzako arduraduna
Negoziazio Kolektiborako arduraduna
Azpisektoreetako arduradunak
Eskualdeetako arduradunak.

Lehen hiru arduradunek osatuko dute Komite Exekutiboa."

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Juantxu Gómez. Bizkaiko Merkataritza Azpisektorekoa.*

## 80.- EMENDAKINA
## Párrafo 170. Página 30.

**Propuesta:**

Eliminar de este punto las 2 primeras líneas e introducir tras el punto 6.2.2. (Composición de las Estructuras sectoriales) justo antes del análisis de cada una de ellas:

"La composición aquí reflejada es orientativa y la definitiva se deberá establecer en base a la realidad y las necesidades determinadas en cada sector".

**Motivos:**

Considerando que la realidad y las necesidades de cada sector pueden ser diferentes, creemos que resulta difícil estructurar los sectores de una forma uniforme desde el ámbito nacional hasta el ámbito de las secciones sindicales, por lo que este párrafo que se introducía haciendo referencia a la composición del Komite Exekutiboa debería ser aplicable a todas y cada una de las estructuras sectoriales, sin perjuicio de la participación de los sectores en las estructuras territoriales.

## 170. Paragrafoa. 29. Orria.

**Proposamena:**

Paragrafo horretatik lehen bi lerroak kentzea: "Osaketa hau orientatiboa hutsa da, sektore bakoitzak bizi duen errealitatearen eta nozitzen dituen arabera egokitu beharrekoa", eta 6.2.2. (Sektore Egituren osakera) atalaren ondotik sartzea, bakoitzaren azterketen aurretik.

**Zergatiak:**

Sektore bakoitzeko premia eta errealitateak desberdinak izan daitezkeela gogoan izanik, gure ustez zaila da sektoreak era uniformean egituratzea nazio-mailatik hasita sekzio sindikaletaraino. Beraz, Komite Exekutiboaren osaketari buruzko aipamena eginez sartu den paragrafoak sektoreetako egitura guzti-guztiei aplikatzeko modukoa izan beharko luke, lurralde-egituretan sektoreek parte hartzerik baztertu gabe, jakina.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Karmen Amezua, Jon Barcena, Jaime Pastor, Karlos Salvarrey, Mikel Zárate. Bizkaiko Osakidetza.*

## 81.- EMENDAKINA
## Párrafo 171. Página 31.

**Propuesta:**

Añadir en cuanto a composición: "Azpisektoreetako Eskualdeko Arduradunak."

**Motivos:**

La experiencia del Eskualde de Bilbao ha sido positiva y en el Sektoreko Eskualdeko Idazkaritza

de Administraciones Públicas participa una persona por cada Subsector.

### 171. Paragrafoa. 30. Orria.

**Proposamena:**
Osaketari dagokionez, erantzi: "Azpisektoreetako Eskualdeko Arduradunak".

**Zergatiak:**
Bilboko Eskualdean izaniko eskarmentua onuragarria izan da eta Administrazio Publikoetako Eskualdeko Idazkaritzan azpisektore bakoitzeko pertsona banak hartzen du parte.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Damen Agirremota. Bilboko Udala Enpresa Batzordeko kidea. Bizkaia.*

## 82.- EMENDAKINA
## Párrafo 172. Página 31.

**Propuesta:**
Cambiar el título y llamarle "Sektoreko Eskualdeko Delegatuen Asanblada".

**Motivos:**
En la ponencia se llama a este órgano Afiliatuen Asanblada pero estará compuesto por delegados y delegadas y la afiliación tendrá la posibilidad de acudir. Si esto es así, más lógico será denominarlo "Delegatuen Asanblada."

### 172. Paragrafoa. 30. Orria.

**Proposamena:**
Izena aldatzea eta deitu: "Sektoreko Eskualdeko Delegatuen Asanblada".

**Zergatiak:**
Txostenean organo horri Afiliatuen Asanblada deitzen zaion arren, delegatuek osatuko dute, afiliatuek egoteko aukera izango dutelarik. Horrela izaki, bidezkoago iruditzen zait "Delegatuen Asanblada" deitzea.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Damen Agirremota. Bilboko Udala Enpresa Batzordeko kidea. Bizkaia.*

## 83.- EMENDAKINA
## 172. Paragrafoa. 30. Orria.

**Proposamena:**

1. Zuzenketa. Paragrafo osoaren ordez hau jarri:

"(172) - Eskualdeko afiliatuek osatua, esparru honek afiliazioaren eskuhartzea handitzea du helburu eta ordutegi eta era egokian egingo dira deialdiak, beti ere, ahalik eta lagun gehien eskuhar dezan."

2. Zuzenketa. Ataleko izenburua aldatu: "6.2.2.5. Sektoreko Eskualdeko Afiliatu eta Ordezkarien Batzarrak" jarriz.

172. paragrafoaren ordez beste bi artikulu hauek jarri (beraz, ostean datozenek daukaten zenbakikuntza zenbaki bat altuago izango dute):

"(172) - Sektoreko Eskualdeko Afiliatuen Batzarrak eskualdeko afiliatuek osatzen dute, esparru honek afiliazioaren eskuhartzea handitzea du helburu eta ordutegi eta era egokian egingo dira deialdiak, beti ere, ahalik eta lagun gehien esku har dezan.

(173) - Sektoreko Eskualdeko Ordezkarien Batzarrak eskualdeko ordezkariek osatzen dute, esparru honetan afiliazioak ateak zabalik ditu eta sektorearen dinamikan ahalik eta pertsona gehien esku har dezan du helburua."

**Zergatiak:**

6.2.2. Sektore Egituren osaketa

6.2.2.5. Sektoreko Eskualdeko Afiliatuen Asanblada (30. or.)

Afiliatuen batzarra baldin bada afiliatuek osatu behar dute, nagusiki, eta bere antolaketa eta ordutegia egokiak izan behar dira afiliatuak joan ahal izateko, bestela bilerak sistematikoki ordu sindikaletan egiteko arriskua handituko da, hots, ordezkarikeriak bere horretan jarraitzea. Hortaz, bi aukera aurkezten dut: afiliatuen asanblada egitura bakarra izan ala bi egitura ezberdin sortu; afiliatuen batzarra eta ordezkarien batzarra.

## Párrafo 172. Página 31.

**Propuesta:**

Corrección:

1° Corrección. En lugar de todo el párrafo, insertar lo siguiente:

"(172). Formado por los afiliados y afiliadas del eskualde, el objetivo de este marco es aumentar la participación de la afiliación; por tanto, las convocatorias se habrán de realizar de modo y en días idóneos, al objeto de lograr la máxima participación."

2° Corrección.Sustituir el título del epígrafe por: "6.2.2.5. Sektoreko Eskualdeko Afiliatu eta Ordezkarien Batzarrak".

En lugar del párrafo 172, añadir los dos siguientes (alterando, por tanto, la numeración de los posteriores):

"(172) Los órganos denominados Sektoreko Eskualdeko Afiliatuen Batzarrak están conformados por los afiliados y afiliadas del eskualde; su objetivo es aumentar la participación de la afiliación y, por ello, las convocatorias se habrán de realizar de modo y en días idóneos.

(173) Los órganos denominados Sektoreko Eskualdeko Ordezkarien Batzarrak están conformados por los representantes del eskualde; este marco está abierto a los afiliados y afiliadas, y su objetivo es aumentar la participación de la afiliación en la dinámica del sector."

**Motivos:**

Dado que se trata de una asamblea de afiliadas y afiliados ha de estar mayoritariamente conformada por los mismos, y su organización y horarios han de ser los idóneos para que los afiliados y afiliadas puedan acudir. De otro modo, se correría el riesgo de llevar a efecto las reuniones sistemáticamente dentro de las horas sindicales, es decir, de continuar con el delegacionismo. Por tanto, propongo dos alternativas: que la asamblea de afiliados constituya una única estructura o, que se creen dos estructuras diferentes: la denominada "afiliatuen batzarra" y la "ordezkarien batzarra"

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Jose Ignazio Herranz. Sestaoko Udala Enpresa Batzordeko kidea. Bizkaia.*

## 84.- EMENDAKINA
## Párrafo 172. Página 31.

**Propuesta:**

"Estará compuesto por las afiliadas y afiliados de la comarca. Su objetivo es impulsar la participación del mayor número de personas en la dinámica sectorial, por lo tanto la presencia de las delegadas y delegados del sector resulta imprescindible."

**Motivos:**

En la ponencia se indica que la Asamblea de Afiliados del sector a nivel Comarcal, estará compuesta por los delegados y delegadas de la comarca.

Probablemente sea un problema de redacción o una forma de decir las cosas, en cualquier caso debemos de corregir dicha redacción ya que nunca podemos establecer un órgano de participación y debate a nivel de afiliados, al menos en el nombre, para reglón seguido señalar que el mismo está compuesto por delegados y delegadas y abierto a los afiliados, relegando a estos a un papel secundario en dicho órgano.

Entendiendo, por lo tanto, los problemas de redacción que pueden haberse originado y que si lo que se pretende es fijar un órgano de participación de cara a la afiliación, donde los delegados y delegadas deben tener con su presencia una importancia vital para el funcionamiento del mismo, la redacción propuesta es la correcta.

## 172. Paragrafoa. 30. Orria.

**Proposamena:**

"Eskualdeko afiliatuek osatuko dute. Horren helburua, sektore-dinamikan ahalik eta pertsona gehienen partaidetza eragitea denez, sektoreko delegatuen presentzia ezinbestekoa da bertan".

**Zergatiak:**

Txostenean adierazten denez, Eskualdeko Sektoreko Afiliatuen Asanblada eskualdeko delegatuek osatuko dute.

Idazkera-kontua edo gauzak esateko modua izango da, noski, baina nolanahi ere idazketa zuzendu behar dugu: izenez, afiliatuek osaturiko eztabaida egin eta parte hartzeko organo bat osatu eta, hurrengo lerroan bertan, afiliatuek ateak zabalik izango dituztelarik, delegatuek osatuta egongo dela adieraztea ezinezkoa dugu, afiliatuak bigarren mailara jaitsi ditugulako.

Ulertzen dut, beraz, idazkera-arazoak izango zirela tartean eta lortu nahi duguna, afiliatuek parte har dezaten moduko organo bat finkatzea da; bertan delegatuen presentziak berebiziko garrantzia izango duelarik.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Lino Rodriguez. El Corte Ingles Enpresa Batzordeko kidea. Bizkaia.*

---

## 85.- EMENDAKINA
## Párrafo 175. Página 31.

**Propuesta:**

Eliminar dicho párrafo y sustituirlo por el siguiente:

"La propuesta es mantener los 10 sectores existentes, incorporando al sector Pesca el subsector Marítimo, creando así el nuevo Sector del Mar.

A partir de ahora los sectores serían los siguientes:

Construcción, Madera, Vidrio, Cerámica....
Químicas, Energía, Textil, Papel, Artes Gráficas,...
Siderometalurgia.
Comercio, Hostelería, Limpieza.
Transporte, Telecomunicaciones...
Financiero (Banca, Cajas y Seguros).
Enseñanza (Pública, Privada, Ikastolas....).
Sanidad (Pública, Privada, Asistencia social....).
Administraciones Públicas (Local, Autonómica, Estatal, Correos...).
Mar (Pesca, Comercial...)."

**Motivos:**

La creación del Sector del Mar mediante la incorporación del subsector marítimo al actual sector de pesca obedece a la necesidad de crear un sector que coordine todas las actividades a nivel portuario tanto de pesca como comercial. Dentro del Sector del Mar se crearían dos subsectores: Pesca y Comercial.

La aprobación de dicha enmienda supondría la desaparición del párrafo (176), así mismo en lo referente a la composición del Komité Nazionala (5.3.2.) párrafo (92) se vería modificado por la inclusión del miembro del sector del Mar.

## 175. Paragrafoa. 30. Orria.

**Proposamena:**

Paragrafoa ezabatu eta ordezkatu:

"Proposamena, lehenagoko hamar sektoreak mantentzea da, Arrantza sektoreari Itsas Gaiak azpisektorea erantsita. Horrela "Itsasoa" izeneko sektorea izango genuke.

Aurrerantzean, sektoreak hurrengoak lirateke:

Eraikuntza, Zurgintza, Beira, Zeramika etab.
Kimikak, Energia, Oihalgintza, Papergintza, Arte Grafikoak, etab.
Metalgintza.
Merkataritza, Ostalaritza, Garbiketa.
Garraioak eta Telekomunikazioak.
Finantza (Banka, Aurrezki Kutxak eta Aseguruak).
Iraskakuntza (Publikoa, Pribatua, Ikastolak).
Osasungintza (Publikoa, Pribatua, Gizarte-Asistentzia).
Administrazio Publikoak (Udalak, Autonomikoa, Estatala, Posta, etab).
Itsasoa (Arrantza, Merkataritza etab).

**Zergatiak:**

"Itsas Gaiak" izeneko azpisektorea egungo Arrantza sektoreari eranstearen ondorioz, Itsasoa Sektorea sortzea, alor horretako jarduera guztiak kontrolatu beharko lituzkeen sektorearen premiak agintzen du. Itsasoa Sektorearen baitan bi azpisektore egongo lirateke: Arrantza eta Merkataritza.

Emendakin hau onestearen ondorioz, 176. paragrafoa ezabatuko litzateke. Era berean, Komite Nazionalaren osaketa (5.3.2) 92. Paragrafoa, ere bestelakoa litzateke, sektore berriaren gehiketagatik.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Ramon Fanlo. Sección Sindical del Puerto de Pasaia y Arrantza Batzordea. Gipuzkoa.*

## 86.- ENMENDAKINA
## Párrafo 181. Página 32.

**Propuesta:**

Eliminarlo, ya que después de haber preguntado parece ser que no hay ninguna empresa con más de 50 personas de plantilla y en las que tengamos un 10% de afiliación en la que no haya Sección Sindical.

**Motivos:**

No me parece lógico que nos planteemos como objetivo ambicioso algo que en realidad o no se da en ningún caso o si se da, parece que lo es de forma excepcional.

## 181. paragrafoa. 31. Orria.

**Proposamena:**

Paragrafo osoa kentzea, kontuaz galde eginik, ez omen dagoelako 50 langileko plantila duen enpresarik, LABek %10eko afiliazioa izanda, Sekzio Sindikalik ez duenik.

**Zergatiak:**

Ez zait bidezkoa iruditzen helburu handitzat planteatzea errealitatean ez dagoen zerbait edo, baldin badago ere, salbuespen hutsa denean.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Damen Agirremota. Bilboko Udala Enpresa Batzordeko kidea. Bizkaia.*

# 6.3. Esku-hartze Arloak
# 6.3. Areas de Intervención



## 87.- ENMENDAKINA
## 186. Paragrafoa. 32. Orria.

**Proposamena:**

Gizarte ekonomiako esku-hartze arloa espreski adierazi behar da.

**Zergaitiak:**

Alde batetik, berretsi atal ekonomiko honetan diharduten langileen antolakuntzaren garrantzia eta atal ekonomiko honetako dinamika sindikalarekin lotu; eta bestetik, pasarte honetan aipatzen diren

beste balizko esku-hartze aukeretatik desberdindu.

Horrela 1992an erabakitakoa eta 2.000 urte arte teorizatzen ari garena berrartu eta bideratuko genuke.

### Párrafo 186. Página 33.

**Propuesta:**

Señalar de forma expresa el área de economía social.

**Motivos:**

Por un lado, reiterar lo ya expuesto sobre la importancia de vincular organizativamente a esta tipología de trabajadores y vincularnos con la dinamización sindical de este segmento económico; y por otro, diferenciarlo de otras posibilidades de intervención más eventuales que se citan (jubilados/pensionistas,...) retomando así lo decidido en 1.992 y que venimos teorizando hasta el 2.000.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Jon Solagurenbeaskoa. Merkataritza, Ostalaritza, Garbikuntza eta abarreko arduraduna. Gipuzkoa.*

## 88.- EMENDAKINA

### Párrafo 186. Página 33.

**Propuesta:**

Pone: "(jubilados/pensionistas, autónomos.....) Poner: "...(jubiladas y jubilados/pensionistas; autónomas y autónomos; etc...)".

### 186. Paragrafoa. 32. Orria.

**Proposamena:**

Euskarazko bertsioan berdin mantentzen da.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Karmen Amezua Osakidetza Enpresako kidea. Bizkaia.*

## 89.- ENMENDAKINA
## 187. Paragrafoa. 32. Orria.

**Proposamena:**

Paragrafo hau eranstea:

"Politika liberalek dakartzaten ondorioen isla tragiko bat lan istripuen eraginez etengabe gertatzen diren heriotzak eta ezin neurtuzko bestelako kalteak dira. Zorigaitzez, egoera horri erantzutea gure eguneroko lan sindikalaren ardatz nagusietako bat bihurtu da. Lan osasunaren aldeko ekintza sindikalak lan baldintzen hobekuntzaren alde jardutea eskatzen du.

Horrek zera dakar berekin:

1.a. Antolakuntza mailan aldaketa garrantzitsu bat egin behar dela, lan osasuna sindikatuaren eremu guztietan kontuan hartu eta bultzatu dadin.

2.a. Prestakuntza espezifikoa dituzten baliabide nahikoak izan behar ditugula sindikatuaren egitura guztietan.

Prebentzio ordezkariak izango direnak ingurugiroari buruzko gaiak enpresen barnean jorratuko dituztela kontutan harturik, bi eremu horiek elkarrekin batera jorratu behar direla uste dugu.

Aurreko beharrei erantzuteko xedez, Biltzar Nagusi honetan "Lan Osasuna eta Ingurugiroa" eskuhartze arloa sortzen dugu, eta hori sindikatuaren lurralde eta sektore mailako egituretan islatuko da".

## Párrafo 187. Página 33.

**Propuesta:**

Inclusión de párrafo nuevo:

"Un trágico reflejo de las consecuencias de las políticas liberales lo constituye el escandaloso mantenimiento del reguero de muertes obreras por accidentes laborales y otros daños cuya magnitud se desconoce. Lamentablemente la respuesta a esta situación se está convirtiendo en uno de los ejes centrales de nuestra acción sindical cotidiana. El abordaje sindical a la salud laboral pasa por luchar por la mejora de las condiciones de trabajo.

Ello conlleva:

1º La necesidad de un salto organizativo que garantize el impulso de la atención y consideración de la salud laboral en todos los ámbitos del sindicato.

2º Disponer de recursos con cierto nivel de conocimientos específicos en todas las estructuras del sindicato.

Dado que los delegados y delegadas de prevención van a ser los que aborden los temas medioambientales en el interior de las empresas, entendemos que ambos campos deben abordarse conjuntamente.

Para responder a las anteriores necesidades se constituye en este Biltzar Nagusia el área de intervención de Lan Osasuna eta Ingurugiroa, reflejándose en la existencia de responsables en las estructuras del sindicato territoriales y sectoriales".

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Lola Amigo, Silver Arregi, Yolanda Espina, Iñaki Moreno, Ane Padilla y Juanjo Rodriguez. Lan Osasuna eta Ingurugiro Batzordea.*

# 6.4. Delegatuen Asanbladak

6.4. Delegatuen Asanbladak

## 90.- ENMENDAKINA
## 192. Paragrafoa. 33. Orria.

**Proposamena:**

Zuzenketa. 192 artikuluaren ordez behean agertzen dena jarri. 193 eta 194 eta 195 paragrafoak kendu.

"(192) - Herri zein eskualdeko ordezkarien batzarrak berehalako erantzunak edo premia larrietarako erabili behar diren egiturak dira, hau da, ezhoizko egiturak dira. Osotasunezko ikuspegitik sindikatuak egiten dituen gogoeta orokorrak jorratzeko egitura zehatzak Sektoreari dagokion egitura, Herri Biltzarrak eta Eskualdeko Afiliatuen Batzarrak dira."

**Zergatiak:**

6.4. Delegatuen Asanbladak

Egitura hau sektore eta lurraldeko egiturekin kontrajarria izan daitekeela ikusten dut. Praktikan ordezka ditzake Sektoreko Batzarrak eta Herri Biltzarrak, gogogabetasunak (inertzia), ordezkarikeriak, eta dauden antolakuntza hutsuneek, neurri handi batean, bultzatzen dutelako egitura honetara jotzea etengabe.

Eztabaida eta sindikatuaren gogoeta orokorrak egiteko, nire ustez, lehentasunezko esparrurik nagusienak Herri Biltzarrak eta Eskualdeko Afiliatuen Batzarrak (6.1.4.) izan behar dira. Bestela, demagun ni ordezkaria naizela eta hilabetean behin (esaterako) nire lan ordutegian eta nire ordu sindikalekin deitzen didatela bilera batera informazioa jasotzeko eta eztabaida orokorrak egiteko; zein motako ardura eduki dezaket Herri Biltzarrak edo Sektoreko egitura bultzatzeko edo horietan eskuhartzeko? Bestaldetik, eta nik daukadan eskarmentuagatik, egitura honek ez du ezertan errazten antolaketa gehiago sortzea edo osotasunezko ikuspegia eukitzea. Azken helburu hauek lortzeko Sektoreak eta Herri Biltzarrak funtsezko euskarriak sustatzen dira txosten osoan zehar. Egia esanda, 34. orrialdean dagoen eskeman ez da inondik ere agertzen egitura hau. Zergatik adabakia jarri txostenaren amaieran? Adabaki honek erraztuko du oraingo antolaketa egoeran jarraitzea.

Honenbestez, egitura hauek izan behar izanez gero, bere erabilera oso mugatua dela azpimarratu beharko zen, berehalako erantzuna eman behar denean edo premia larrietarako deitu behar direla argi eta garbi azalduz.

## Párrafo 192. Página 34.

**Propuesta:**

Corrección. Sustituir el párrafo 192 por lo que abajo se sugiere, eliminando los párrafos193, 194 y 195.

"(192) Las denominadas "Herri edo Eskualdeko ordezkarien batzarrak" son estructuras que han de dar respuestas inmediatas o intervenir en casos de emergencia, es decir, estructuras de índole extraordinaria. Las estructuras concretas encargadas de analizar las reflexiones que con carácter general realiza el Sindicato desde un punto de vista integral son las que corresponden al Sector, las Herri Biltzarra y las Eskualdeko Afiliatuen Batzarra."

**Motivos:**

6.4. Delegatuen Asanbladak

Observo que esta estructura puede contraponerse a las estructuras de sector y a las territoriales. En la práctica, puede sustituir a las Sektoreko Batzarrak y a las Herri Biltzarrak, dado que la inercia, el delegacionismo y las carencias organizativas existentes nos impulsan constantemente hacia dicha estructura.

Los principales foros para debatir y realizar reflexiones generales acerca del Sindicato, en mi opinión, han de ser las Herri Biltzarrak y las Eskualdeko Afiliatuen Batzarrak (6.1.4.). De otro modo, supongamos que yo soy representante y soy convocado una vez al mes (por ejemplo) dentro de mi horario laboral y en mis horas sindicales, para recabar información y llevar a cabo consideraciones generales; ¿qué tipo de responsabilidad puedo tener para impulsar las Herri Biltzarra o la estructura sectorial y tomar parte en las mismas? Por otra parte, según mi propia experiencia me dice, esta estructura en absoluto facilita una mayor organización o una mejor perspectiva general. Para obtener estos últimos objetivos, a lo largo de toda la ponencia son promovidos los Sectores y las Herri Biltzarra como auténticos cimientos organizativos. A decir verdad, tal estructura no aparece por ninguna parte en el esquema reflejado en la pág.34. ¿Por qué poner un parche al final de la ponencia? Tal parche facilitará que continuemos en la actual situación organizativa.

Por todo ello, si estas estructuras resultan necesarias, tendría que señalarse con toda claridad que su utilización debería ser muy restringida, ciñéndose a dar respuestas inmediatas y a convocatorias de carácter extraordinariamente urgente.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Jose Ignazio Herranz. Sestaoko Udala Enpresa Batzordeko kidea. Bizkaia.*



## 91.- ENMENDAKINA
## Párrafo 193. Página 34.

**Propuesta:**

Pone: "...a la que asiste algún representante." Poner: "...a la que asiste alguna o algún representante".

### 193. Paragrafoa. 33. Orria.

**Proposamena:**
Euskarazko bertsioan berdin mantentzen da.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Karmen Amezua. Osakidetza Enpresako kidea. Bizkaia.*

## 92.- EMENDAKINA
## Página 35.

**Propuesta:**
Modificar el esquema de la estructura del sindicato que aparece en la página 35 de modo que todas las flechas de comunicación que van de arriba para abajo, vayan también de abajo para arriba.

**Motivos:**
La presentación que se ha hecho de la estructura, puede ser mal interpretada, de modo que pudiera decirse que no existe comunicación entre las estructuras inferiores y las de dirección del sindicato.

### 34. Orria.

**Proposamena:**
35. orrialdeko Sindikatuaren egituraren eskema aldatzea, behera begira agertzen diren geziak gora begira ere ager daitezen.

**Zergatiak:**
Egin den egituraren aurkezpena gaizki ulertua gerta daiteke: Sindikatuko beheko egiturak eta goikoen arteko komunikaziorik ez dagoela esan lezake norbaitek, agian.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Pilar Iñarritu. El Corte Ingles Enpresa Batzordeko kidea. Bizkaia.*

# 8. Kontu orokorrak
# 8. Algunas cuestiones generales

## 8.1. Afiliazio politika
## 8.1. Política de Afiliación

### 93.- EMENDAKINA
### 202. Paragrafoa. 36. Orria.

**Proposamena:**

Esaldiaren amaieran afiliazioari buruz, hitzegiten duenean "ofensiva" hitza "activa"gatik aldatzea.

**Zergatiak:**

Nahiz ados egon Afiliazio Politikaren inguruko atalarekin gehiegizkoa iruditzen zaigu aspalditik afiliazioaren inguruan izan dugun jarrera lasaiagatik, afiliazio politika ofentsibo batetara igarotzea. Egokiagoa iruditzen baitzaigu guztiok burutu dugun eguneroko afiliazio politika aktibo batetara igarotzea.

### Párrafo 202. Página 37.

**Propuesta:**

Cambiar al final del párrafo, la palabra "ofensiva" por "activa".

**Motivos:**

Estando de acuerdo con la filosofía del capítulo de Política de Afiliación, nos parece un poco excesivo pasar de la postura "histórica" de relajación, o de no darle la debida importancia a este tema, a la de "ofensiva". Más bien pensamos que tenemos que pasar (todos/as) a una política activa de día a día.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Xabier Martin. Baztan Bidasoako Eskualdeko arduraduna. Nafarroa.*

# 8.2. Elecciones Sindicales
# 8.2. Hauteskunde Sindikalak

## 94.- EMENDAKINA
## Párrafo 207. Página 37.

**Propuesta:**

Al principio del párrafo añadir: "Se tiene que caracterizar la figura del delegado que se quiere, ya que a la hora de las elecciones Sindicales parece que todo vale."

**Motivos:**

En todas las elecciones sindicales siempre surge el mismo debate dentro del sindicato y creemos que ya es hora de que de una vez por todas se clarifique este tema.

## 207. Paragrafoa. 36. Orria.

**Proposamena:**

Paragrafoaren hasieran hurrengoa erantsi: "Nolako delegatua nahi den zehaztu beharra dago, hauteskunde sindikalak egiteko unean, antza denez, edozerk balio omen du."

**Zergatiak:**

Hauteskunde sindikal guzti-guztietan eztabaida ber-bera sortzen da Sindikatuan: gaia argitzeko garaia omen dugu hauxe.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Tatel. Lenintz eskualdea. Gipuzkoa.*

## 8.3. Gestio administratiboa, ekonomiko-finantziaria eta Ondare Sindikal Metatua

## 8.3. Gestión administrativa, económica-financiera y Patrimonio Sindical

### 95.- EMENDAKINA
### Párrafo 215. Página 38.

**Propuesta:**
Adición al punto 8.3., posterior al (214) y anterior al (215).

"La nueva dirección nacional del sindicato aprobará y pondrá en práctica durante la vigencia del mandato resultante del 5º Biltzar Nagusia un plan económico de homologación salarial y de cotizaciones del personal en nómina del Sindicato que contemple la equiparación salarial a un convenio sectorial de tipo medio."

### 215. Paragrafoa. 37. Orria.

**Proposamena:**
Paragrafoaren hasieran hurrengo hau gehitzea:

"Sindikatuko zuzendaritza nazional berriak, 5. Biltzar Nagusiaren ondoriozko agintaldian zehar, Sindikatuko nominan dagoen pertsonalaren soldata eta kotizazioak hitzarmen sektorial ertain bati egokitzea onetsi eta praktikan jarriko du."

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Salba Bergara. Udal eta Foru arduraduna. Eneko Txarroalde. Justiziako arduraduna. Bizkaia.*

# 8.4. Euskaldunización interna
# 8.4. Barne-euskalduntzea

## 96.- EMENDAKINA
## 222. Paragrafoa. 38. Orria.

**Proposamena:**

Testua beste honengatik aldatzea: "5. Biltzarretik aterako den Komite Nazionaleko kide guztiek euskaldunak izan behar dute. Honek LABen estatutuak aldatzea eskatuko balu, Biltzar honek emendakina hau onartuko balu, atal hau estatutuetan aldatuta gelditukoda".

**Zergatiak:**

Ardura Nazionala edukiko duten pertsonentzat, euskaldunak izatea ezinbestekotzat jotzen dugulako, ez euskaldunak izatekotan egunerokotasuna (bilerak, idazkiak, prentsaren aurreko agerraldiak,...) izugarri eraginda gelditukobaita.

## Párrafo 222. Página 39.

**Propuesta:**

Sustituir el texto por el siguiente: "Todas las personas que constituyan el Komite Nazionala elegido en el 5° Biltzar Nagusia deben ser euskaldunes. Si este Congreso aprobase esta enmienda y, en consecuencia, esto exigiera alterar los Estatutos de LAB, este epígrafe aparecería reflejado en los Estatutos."

**Motivos:**

Consideramos ineludible la obligación que tienen las personas que ostentan responsabilidad nacional de ser euskaldunes, ya que no siéndolo la cotidianeidad del Sindicato (reuniones, escritos, ruedas de prensa, etc...) quedaría seriamente afectada.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Jon Urrusolo, Pili Sanz, Maritxu Sanz. Gipuzkoako Irakaskuntzako liberatuak.*

## 97.- EMENDAKINA
## 222. Paragrafoa. 38. Orria.

**Proposamena:**

Aldatzea: "Komite Nazionala erabat euskalduntzeko konpromizuan, hurrengo Biltzar Nagusia baino

lehen Komite Nazionalaren osaketak euskaraz funtzionatzeko gai izan beharko du."

**Zergatiak:**

Nahiz eta pentsatu dagoeneko Komite Nazionaleko kideak euskaldunak izan behar direla, konpromizua datozen lau urte hautetan hartu behar da, ahalik eta lehenago hobe, itxaroten egon gabe.

## Párrafo 222. Página 39.

**Propuesta:**

Modificar: "El Komite Nazionala se compromete a su total euskaldunización. Para ello, el Komite Nazionala deberá ser capaz de funcionar en euskara antes del próximo Biltzar Nagusia".

**Motivos:**

Aunque pensamos que los miembros del Komite Nazionala ya deberían saber euskara, el compromiso debe ser asumido en los próximos cuatro años, cuanto antes mejor y sin esperar.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Jon Urrusolo, Txente Rekondo. Gipuzkoako Irakaskuntzako liberatuak.*

## 98.- EMENDAKINA
## 223. Paragrafoa. 38. Orria.

**Proposamena:**

Gehitzea: "...(prentsa-oharrak, prentsaurreak, etab.) euskara-espainolez, euskara-frantsesez edo, areago..."

## Párrafo 223. Página 39.

**Propuesta:**

Añadir: .. "(notas de prensa, ruedas de prensa, etc.) euskara-español, euskara-francés o, aún más ..."

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Jon Urrusolo, Txente Rekondo. Gipuzkoako Irakaskuntzako liberatuak.*

# 9. LABen Estatutuak
# 9. Estatutos de LAB

## 99.- EMENDAKINA
## Párrafo 233. Página 40.

**Propuesta:**

Modificarlo, dejando claro que el único órgano autorizado para modificar los estatutos es un Biltzar Nagusia y no hacer la excepción en este caso y convocar para diciembre del 2.000 una segunda parte de este 5º Biltzar Nagusia.

**Motivos:**

En la ponencia se plantea que no es operativo convocar un nuevo Biltzar Nagusia después de haber transcurrido sólo 8 meses del anterior, pero no se dan más explicaciones. Si los Estatutos tienen una importancia considerable, si el método de debate va a ser el mismo que se ha utilizado para las ponencias del Biltzar Nagusia, no veo ningún tipo de dificultad a que sean modificadas en un Biltzar Nagusia Extaordinario en lugar de en un Biltzar Nazionala. Además como referencia, en los actuales Estatutos se plantea que la modificación de los mismos es competencia del Biltzar Nagusia.

## 233. Paragrafoa. 39. Orria.

**Proposamena:**

Idazkera aldatzea, Estatutuak aldatzeko baimena duen organo bakarra Biltzar Nagusia dela argi eta garbi utzirik; ez egitea oraingoan salbuespena, 5. Biltzar Nagusiaren bigarren partea 2000ko abendurako deituta.

**Zergatiak:**

Aurrekoa amaitu zenetik zortzi hilabete bakarrik igaro direnean beste Biltzar Nagusi batera deitzea operatiboa ez dela dio Txostenak, baina horren inolako azalpenik eman gabe. Estatutuek sekulako garrantzia baldin badute oraindik, eztabaida-metodoa Biltzar Nagusiko txostenak jorratzeko berbera baldin bada, ez diot inongo eragozpenik ohiko Biltzar Nagusian egin ordez, Aparteko Biltzar Nagusian Estatutuak aldatzeari. Beste aldetik, erreferentzia gisa, Estatutuak aldatzea Biltzar Nagusiaren eskuduntza dela oraingoetan jasotzen da.

| Adostua | Bertan behera utzitakoa | Onartua | Ez onartua |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Transaccional | Retirada | Aprobada | Rechazada |

*Egilea: Damen Agirremota. Bilbo Udala Enpresa Batzordeko kidea. Bizkaia.*